

Karlistaldiak



SANTI LEONÉ

Gustatu zitzaidan Ilaski Serranok *Ahoz aho* saioan Asiskori egin zion elkarrizketa, eta anitz gauza interesgarri kontatu zituen Urmenetak Agosti Xahori buruz, *Azti Hitza* komikiaren kariatz: gure kulturako erraldoia dela, eta halere –edo hain zuzen ere horregatik– aski ezezaguna dela gure artean; errepublikarra izan zela, gorria, feminista errotik eta, nonbait, gaya. Komikia, nolana ere, ez da Xahoren biografia; lehen karlistaldian zuberotarrak Nafarroara eginiko bidaia paratzen du iruditan, betiere gaurkotasuna duelakoan. Pena da, 21. mendeko heroia izan dadin hainbertze eginahal egin ondotik, bidean Deloreanek huts egin eta Xahoren bidaiak joan den mendeko 80ko hamarkadan lur hartu izana, *Euskadi alegre y combativa* zen garaian hain justu ere. Giro jatorrean egin du bidaia Xahok, borrokan kontent ari diren jendeen artean, eta Lesakan egin diote euskaldunen adorearen gorazarre; ea ikusten dituen pilotalekuan ari diren mutilak: “katakumeak jostetan, gaitzeko tigreak gudu. Ikusi beharko zenituzke sarraski latzenetara sartzen! Gehienek ez daukate hamasei urteak”. Euskolabo naizen hau oraindik ari da orrialde hori digeritzen.

Karlistak eguneratu ditu hondar egun hauetan Euskal Herria inarrosi duen ebentoak ere. *Napardeath* filmaz ari naiz, bistan dena. Trilogia bati akabera eman diote Beñat Iturriozek eta Xabier Padinek: umorea, frikismoa eta zinemazaletasuna –lau erreferentzia segundoko–, historia eta gogoeta politikoa nahasi dituzte hiru filmetan: are inportanteago, hutsik egin gabe 21. mendeko kezketara egokitu dituzte zonbi karlistak eta momia nafarrak, eta, inori leziorik eman gabe, hausnarrerako bazka ederra eskaini digute. Trilogia akituta, merezi duen saiakera idazteko tenorea dugu nire ustez. Ni, badaezpada ere, hasi naiz oharrak hartzen libreta batean. ●



“72 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN ETA ESKU-HARTZE JURIDIKORIK GABE KANPORATZEN DUTE JENDEA”

ERRIBERAKO SENEGALDARREN ELKARTEA

Egoera irregularrean egoteagatik, Modou Khadim Ribaforadako bizilaguna Senegalera kanporatu zuten duela bi aste, Udalaren eta alkatearen laguntzaz. Elkarteak espres kanporatzeak salatu ditu, bermerik gabe egiten direlako eta alkateak Khadimi jarritako moduko hitzordu-tranpak gero eta ohikoagoak direla kritikatu dute. “Uste dugu prebrikazioa izan daitekeela. Bere kompetentzia eta funtzioetatik harago joan da Udala”. Arrazakeria instituzionala leporatu diote alkateari **2019/05/17**

